

## **2026KO URTARRILAREN 26KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko urtarrilaren 26an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### **I.- FAKTURAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 104 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA BAT MILA EHUN ETA HAMAZORTZI euro ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI zentimokoa (61.118,77 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

### **II.- SAN JOSE AUZOKO HIRI-IGOGAILUA INSTALATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ETA LIZITAZIO DEILADIAREN ONARPENA.-**

Klausula-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: "Igogailua eta pasarela San Jose auzoan" proiektua gauzatzea, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorrita; dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

Proiektu honen aurrekontua 185.352,62 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Kontratazio honen xede diren obrak egiteko epe osoa 4 hilabetekoa izango da, zuinketaren egiaztapen-akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1.- Lanak prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko kontratazio espediente onartu eta lizitazio deialdia egitea.

### **III- POSTA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN LEHEN LUZAPENA.-**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2024-01-17ko Foru Aginduaren bidez, Kontratazioen Zentralaren bidez, espedientearekin bat egin zuten foru eta udal erakundeentzat "Posta zerbitzua" kontratatzeke Esparru-Akordioa. GUREA MARKETING-ekin burutzea ebatzi zuen, hasieran bi urterako eta beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Orain, 2026-01-14ko datan emandako Foru Aginduaren bidez, esparru akordio horren lehen luzapena onartu du.

Honen aurrean eta Lazkaoko Udala esparru akordio horri atxikitako bat izanda, eta "Posta zerbitzua" beharrezkoa denez, kontratu eratorria ere urte betez luzatzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

#### IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea astean 17 ordutik 11 ordura, onuradunaren egoera hobetu delako. Onuradunaren ekarpena %35ekoa da.
- 25-11-15 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2025eko abenduaren 24tik. Zerbitzu hau bere ohiko laguntzailearen ordezkapenak egiteko izango da. Onuradunaren ekarpena %100a izango da.
- 25-11-16 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2025eko azaroaren 2tik astean 4 ordu, eta urtarrilaren 13tik aurrea astean 4 ordutik 9 ordura handitzea, onuradunaren osasun egoera aldatu delako. Onuradunaren ekarpena %100 izango da.
- 25-11-13 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, onuradunaren egoera hobetu delako.
- 25-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2025eko azaroaren 17an heriotzagatik.
- 23-11-13 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2025eko abenduaren 19tik, onuraduna egoitzan sartzeagatik.
- 25-11-14 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2025eko abenduaren 18an astelehenetik larunbatera egunero ordu bete, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena %2 a da.

##### Joxemiel Barandiaran Udal kiroldagiko bazkide eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-23-16 zenbakidun esped.: igeritketa ikastaroa ordaintzeko  $42,35 \times 2 = 84,70$  €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

- 25-23-15 zenbakidun esped.: igeritketa ikastaroa ordaintzeko 66,70 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-23-02 zenbakidun esped.: igeritketa ikastaroa ordaintzeko 38,50 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

Kulturako eta denbora libreko jarduera eta ikastaroetako tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 26-24-01 zenbakidun esped.: robotika ikastaroa ordaintzeko  $40,00 \times 2 = 80,00$  €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-24-01 zenbakidun esped.: robotika ikastaroa ordaintzeko  $40,00 \times 2 = 80,00$  €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-24-04 zenbakidun esped.: robotika ikastaroa ordaintzeko  $40,00 \times 2 = 80,00$  €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-24-03 zenbakidun esped.: marrazketa ikastaroa ordaintzeko 29,50 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 25-24-02 zenbakidun esped.: marrazketa ikastaroa ordaintzeko  $29,50 \times 2 = 59,00$  €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

Garraiorako diru laguntza ematea.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: abenduan gizakia helburura egin dituen garraio gastuak ordaintzeko, 300,00 €ko diru laguntza ematea.
- 26-18-01 zenbakidun esped.: garraiorako 71,00 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura, Arrasateko Aita Mendi Ospitale Psikiatrikora egin dituen garraio gastuak ordaintzeko.
- 25-14-02 zenbakidun esped.: Agipad-era egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko, urria, azaroa eta abendua, 704,40€ ko diru laguntza.

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatiko dirulaguntzen deialdia.-

Euskararen sustapenerako dirulaguntzen artean, gida baimena euskaraz ateratzeagatik dirulaguntzen 2025erako deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2026eko gida baimena ateratzeagatiko dirulaguntzen deialdia onartzea erabaki du.

#### VI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### - Erakusleiho lehiaketa.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko gabonetan burututako Erakusleiho Lehiaketaren kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte udalera eta ondorioz dagokien merkatariei lehen ordainketa egitea proposatzen da.

Guztira 460 €

#### VII.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazteriako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabaki du:

##### Antzar Korrikalariak.-

Antzar Korrikalariaren eta Udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 12.000 €-ko dirulaguntza ematea aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 4.800 €, ordaintzea onartu da.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Joxemai. Langileen ordezkari batzuk joan zaizkiela esanez langileez justu dagoela. Bi eskaera egin dira eta Ogasun batzordean eskatu, eta ez dela landu.

Alkatea. Ez dutela aukerarik eduki, oso prezipitatua iruditu zaiela orain oposizioa jotzea. Ogasunera eramateko asmoa badela baino usten da ez dela horretarako toki egokia.

Joxemai. Ez zaiola prezipitatua iruditzen.

Alkateak. Esan zitzaizela langileei 2020an egin zela azterketa bat. Absentismo handia dagoela. Bajak daudenean eragozpenik ez dela jarri ordezkapenak egiteko. Eskaerak aztertuko direla. Patxadaz aztertu nahi dutela.

Joxemai. Ez bazterrea uzteko beraiek laguntzeko daudela.

Ez du egoki ikusten modua, berarekin ez dela inor bidu.

Izango dela ogasunean aukera hitz egiteko

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeitahi eta hamabost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.